

SASTRAKADIEK

DESKRIBAPENA

Zuhaixken eta iratze handien formazioak biltzen dira unitate horretan. Landare-diaren segidan, basooen aurrekoak dira aipatutako formazio horiek.

Zuhaixka-komunitate bat da txilardia, altuera ertainekoa, eta txilarrak (*Erica ssp*) garrantzi nabarmena du bertan. Nahasketa gogorren aurrean, hala nola suaren edo luberriaren aurrean, bizirik iraun dezakete espezie horiek; izan ere, lurpeko organoetan edo anduietan dauden ernamuietatik ernaberritzen dira. Haien ondoan, beste zuhaixka batzuk izaten dira: txara batzuk (*Cistus ssp*) eta ote zuriak (*Ulex ssp*), adibidez.



Iratze-lekua



Sastrakadi mediterranearra



Txilardia




EUNIS HABITATAK

EUNIS KODEA	EUNIS Habitata
E5.31.(X)	Iratzedi atlantiar eta subatlantiar muinotarrak
E5.31.(Y)	Iratzedi atlantiar eta subatlantiar menditarrak
F3.11.(X)	Arantzadi atlantiar kaltzikolak
F3.11.(Y)	Lahardi kaltzikola (<i>Rubus ulmifolius</i>)
F3.13	Lahardi azidofilo atlantiarra, elorriekin (<i>Rubus gr. glandulosus</i>)
F3.15(X)	<i>Ulex europaeus</i> generoko otadi subatlan.
F3.15(Y)	<i>Ulex europaeus</i> generoko otadi atlantiarra
F4.21(X)	Ahabidia
F5.21(Y)	Gurbizti edo <i>maquis</i> altu termoatlantiarra
F6.11(Z)	Abarizti atlantiarra
E5.33	Iratzedi supramediterranearrak
F2.23	<i>Juniperus communis subsp. Alpina</i> sastrakadiak
F3.12(X)	Ezpeldi kaltzikola
F3.12(Y)	Ezpeldi azidofilo atlantiarra
F3.22	Elordi ez atlantiarra
F5.132	Miter-formazioak
F5.21(X)	<i>Maquis</i> altu mediterranearra, <i>Erica arborea</i> eta <i>Arbutus</i>
F5.22	<i>Maquis</i> baxu mediterranearra, <i>Erica scoparia</i> generokoa
F5.246	<i>Maquis</i> baxu mediterranearra, <i>Cistus crispus</i> generokoa
F6.11(X)	Abarizti errioxarra
F6.11(Y)	Abarizti submediterranearra
F6.12	Erromerodial
F4.12	<i>Erica ciliaris</i> eta <i>Erica tetralix</i> -dun txilardi hezeak
F4.21(Y)	<i>Erica arborea</i> generoko txilardi altua














EUNIS KODEA	EUNIS Habitata
F4.22	Txilardi subatlantiarra
F4.23(X)	<i>Ulex sp.</i> nagusitzen den txilardi atlantiarra
F4.237	<i>Erica vagans</i> eta <i>Erica cinerea</i> txilardi atlantiarra
F7.44(X)	Txilardi kaltzikola subatlantiarra, <i>Genista</i> espeziekoa
F7.44(X1)	Txilardi kaltzikola subatlantiarra, <i>Spiraea</i> espeziekoa
F7.44(X2)	Txilardi kaltzikola subatlantiarra, <i>Genista eliasseanenii</i>
F7.44(Y)	Txilardi kaltzikola atlantiarra, <i>Genista</i> espeziekoa
F7.44(Y2)	Txilardi kaltzikola atlantiarra, <i>Genista legionensis</i>
F7.44(Z)	Txilardi kaltzikola tuparrizalea, <i>Genista</i> espeziekoa







BANAKETA

Satrakadi atlantikoek 13.877 ha-ko azalera hartzen dute; hau da, EAEko azalaren % 1,92. Mediterraneoarrek 7.391 ha-ko azalera hartzen dute; hau da, EAEko azalaren % 1,02. Txilardiek 38.388 ha-ko azalera hartzen dute; hau da, EAEko azalaren % 5,31.



EMANDAKO ZERBITZUAK

HORNIDURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	ERREGULAZIO-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	KULTURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?
Elikagaiak 	Zuhaixka-formako espezie askok fruitu mamitsuak ematen dituzte, animaliek eta gizakiok elikagai ditugunak. Hegazti eta ugaztun zinegetiko askok maiz egiten dute habia sastrakadietan.	Klima erregulatzea 	Landaredia eta lurzorua karbono-hustuleku gisa erabiltzen dira, klima erregulatzeko. Tenperaturak baretzen ere laguntzen du landarediak.	Aisialdiko jarduerak 	Ekosistema hauetan aisialdiko jarduera ugari egin daitezke (basafruituak bildu, ehizan jardun, etab.).
Ur geza 	Sastrakadietako landarediak uraren elementu kutsatzaileak atxiki ditzake, ur-araztailea balitz bezala.	Airearen kalitatea erregulatzea 	Landarediak eta beste organismo batzuek aireko kutsatzaileak atxikitzen dituzte, eta haren kalitate ona bermatzen.	Jakintza zientifikoa 	Ezagutza-iturri bikainak dira ekosistema hauek, hainbat ikerketa egiteko aukera ematen dutenak.
Lehengai biotikoak 	Sastrakadietako zenbait espezieetatik ehun-zuntzak, zumea nahiz zura atera daitezke, arropa eta objektuak egin zein eskulangintzan erabiltzeko.	Ura erregulatzea 	Landarediak lurzorua erregulatzen; horrek guztiak ur-iragazketak errazten ditu, bai eta akuiferoak urez betetzea ere.	Ingurumen-heziketa 	Ekosistema hauetan, ingurumen-heziketarekin lotutako hainbat programa abiarazi dira.
		Higadura kontrolatzea 	Euriaren eragina murrizten du landarediak. Lurzorua erregulatzen du, azaleko isurketak erregulatuz eta, beraz, lurzorua higadura kontrolatuz.	Jakintza tradizionala 	Gurean, oso ohikoa izan da sastrakak modu kontrolatuan erretzea.
		Lurzorua emankortasuna 	Sastrakadiak garrantzi handiko mantenu-gaiturriak dira, materia organiko ugari ematen baitute.	Paisaien estetikaz gozatzea 	Ekosistema hauek gozamen-iturri ditugu, beren balio estetiko delako tarteko.
Gene-gordailua	Dibertsitate genetiko handiko ekosistemak dira, eta balio handiko espezie autoktonoak dira nagusi.	Naturako nahasketak erregulatzea	Landarediak urari eutsi eta haren isuria mantsotzen du, eta horrek, infiltrazioa errazteaz batera, euri handiko sasoieta ibaiak gehiegizko urik ez izatea eta uholdeen eragina	Identitate kulturala eta toki bateko izatearen sentipena	Gure kulturaren oso errotuta dago egur-ikatza lortzeko zuhaitz eta zuhaixkak zenbait metodo erabiliz erretzea.

HORNIDURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	ERREGULAZIO-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	KULTURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?
			arintzea dakar. Haize-babes modura ere erabili ohi da landaredia.		
Sendagai naturalak printzipio aktiboak 	Ekosistema hauetako landareetako batzuk sendabelartzat nahiz usain-belartzat erabili daitezke: erromeroa, esaterako.	Kontrol biologikoa 	Habitat hauek oreka-egoeran daudenean, erraz erregula daitezke izurri eta inbasioak.		
		Polinizazioa 	Ekosistema hauetan espezie ugari daude, eta horri esker, polinizazio-prozesuetan elikagai ugari izaten da.		